

Hego Euskal Herrian ez dago trantsizio energetikorik

Analisia eta bidezko trantsizio
energetikorako proposamenak



www.ela.eus

ELA
EUSKAL SINDIKATUA

AURKIBIDEA

1. Hego Euskal Herriko energia ereduaren azterketa.....	3
2. ELAren proposamenak bidezko trantsizio energetikorako.....	13

Gaur egun bizi dugun larrialdi klimatikoaren, eta oroar, krisi sistemikoaren erantzuleetako bat daukagun eredu energetikoa da. Alde batetik, sistema sozioekonomikoa energia fosilean oinarrituta dagoelako, eta bestetik, batez ere Euskal Herritik kanpo ekoiztutako energia iturrien oso menpeko garelako.

2022ko energia datuak aztertu ditugu txosten hau egiteko. Datu hauek azken urteetan ez dela aldaketarik izan erakusten dute. Denon ahotan trantsizio energetikoa behin eta berriz darabilgu, baina ekintzetan ez da trantsiziorik ikusten, ez da benetakoa. EAE eta Nafarroako gobernuek egiten dutena propaganda hutsa da.



Zoritxarrez, denbora ez dugu alde eta zenbat eta beranduago egin bidezko trantsizioa, ordan eta aukera gutxiago izango ditugu justua izateko. Beharrezkoa da pertsonak kontuan izatea eta bititza erdigunean jartzea.

1. HEGO EUSKAL HERRIKO ENERGIA EREDUAREN AZTERKETA

1.1 Energiaren barne kontsumo gordina


Hego Euskal Herriko eredu energetikoa nolakoa den ikusteko, kontsumitzen dugun energia zein iturritatik datorren ikusi behar dugu lehenik. Aski ezaguna da energia ez dela sortzen ez suntsitzen, eraldatu egiten dela. Kontsumitzen dugun energia ekoizteko beste energia turri batzuk erabili behar dira (petrolio gordina, airea, etab.). Horregatik, hurrengo infografian ikusten denez, ez da gauza bera energiaren azken kontsumoa (ekipo profesionaletan, etxeetan, ibilgailuetan eta abarretan kontsumitzen dena) eta kontsumo gordina (kontsumitzen dugun energia guztia helarazteko atera behar den oinarritzko energia guztia hartzen duena). Kontsumo gordinak, beraz, kontuan hartzen ditu kontsumoa eta eraldaketa asetzeko behar den energia, lurraldeen arteko energia-mugimenduak eta izakinen aldaketak. Dokumentu honetan, kontsumo gordina eta azken kontsumoa aztertuko ditugu.

EAEren kasuan, energiaren barne kontsumo gordinaren %83,14 energia fosila da, energia berriztagarriekin ordea %8,8 ekoitzi da. %6,71 kanpotik inportatu behar izan den elektrizitatea da (honen zati bat fosila da baina ez dago zehaztuta zein iturri erabili den). Datu hauek garbi erakusten dute EAEk duen menpekotasun bikoitza. Alde batetik energia fosilekiko menpekotasuna, eta bestetik kanpotik ekarritako energiarekikoa, izan energia fosil bezala edo inportatutako elektrizitate bezala ekartzen dena.



Nafarroaren kasuan, egoera hobean daude energia berriztagarriak. Kontsumitutako energia gordinaren %20,70 baita iturri hauetatik eratorria. Hala ere, energia fosilen erabilera energia sorkuntzan handiegia da oraindik, %79,24. Nafarroa ere energia fosilen eta kanpotik ekarritako energiaren menpeko da.

Hego Euskal Herriko energiaren barne kontsumo gordina Europar Batasunarekin alderatuta, ezberdintasunak ageri dira.



Europar Batasunean, petrolioak (%35) eta gas naturalak (%22) dute pisu handiena. Hego Euskal Herrian bezala. Berriztagarriei dagokionez, oraindik ez da nahikoa duten pisua (%18), Nafarroaren antzekoa, baina EAE oso atzean utzita hala ere. Europako energia hornikuntzan kezkarria ikatzak (%12) oraindik duen pisua eta energia nuklearra (12%) berriro ere hartu duen indarra da. Hego Euskal Herrian bi energia iturri hauek ez dute presentziarik ia.

1.2. Menpekotasun energetikoa

Menpekotasun energetikoari dagokionez, datuak oso ezerdinak dira EBn eta Hego Euskal Herrian.


(%)	2021
EAE	90
Nafarroa	84
EB 27	58

Kanpotik ekarritako energiarekiko dugun menpekotasuna handia da, EAEn %90a eta Nafarroan %84a. Menpekotasuna Hego Euskal Herrian batez ere energia fosilek eragiten dutena da, berriztagarrien garapena oso eskasa delako, bai Nafarroan, eta are


gehiago EAEn. Europar Batasunean kanpoko dependentzia txikiagoa da, baina %58a menpekotasun maila handia da, energia fosilekiko menpekotasunaren adierazgarria da datu hau ere. Menpekotasuna gutxitzeko, bai HEHn eta baita EBn ere, energia berriztagarrien erabilera orokortu eta energia kontsumoa gutxitu behar dira.

Azken urteetan erabilitako energia iturriak izan duten bilakaera aztertzea ere interesgarria da. Batez ere petrolio eta gas naturala erabili dira, bai EAEn eta baita Nafarroan ere, azken urteetan.

EAEn, 2000 urtetik energia kontsumo gordinak %2,65 egin du behera. Petrolioaren erabilerak %10,39 egin du behera, baina gas naturalaren erabilerak ordea %73,91 egin du gora. Berriztagarrien erabilerak goranzko joera oso txikia erakutsi du azken 20 urteetan, 2000. urtean energia kontsumo gordinaren %3,93 suposatzen zuten eta 2022an %8,80 izatera soilik pasa dira. Honek adierazten du trantsizio energetikorik ez dela egiten ari, berriztagarriei loturiko energia sorkuntzak ez duela ia aurrerapausorik erakutsi azken urteetan, eta behar-beharrezkoa dela energia fosilak alde batera uztea behingoz. Propagandak diotenaren kontra, ez dago trantsizio energetikoaren arrastorik.





Nafarroak XXI. mende hasieran izan zuen berriztagarrien hazkundea garrantzitsua izan zen, baina azken hamarkadan berriztagarriek energia kontsumoan izan duten pisua gutxitu egin da. 2012an berriztagarrien kontsumoa kontsumo gordinaren %22,49a zen, baina 2022 pisua galdu du eta %20,76 izatera pasa da. Petrolioaren erabilerak %2,5 soilik egin du behera baina oso esanguratsua da ordea gas naturalaren erabilerak izan duen bilakaera, 2012-2022 bitartean %64,99 egin baitu gora. Datu hauek ere, Nafarroako trantsizio energetiko ezaren adierazle kezagarria dira.





1.3. Energiaren azken kontsumoa

Energiaren azken kontsumoa azterzen badugu, ondoriozta dezakegu EAEn gehien kontsumitzen diren energia iturriak petrolio eta gas naturala direla, %68a baitira, berriztagarriak ordea, %8a. 2000tik gure energia kontsumo ereduak ez da apenas aldatu, orduan ere fosilak zuten pisu handiena (%68,8) eta berriztagarriak gutxien kontsumitzen ziren (%4,5). Energia iturri ezberdinen kontsumoaren bilakaera aztertuta, petrolioak izan du igoera nabariena azken kontsumoan, 2000-2022 bitartean %13,59 hazi da kontsumoa. Datu hauen artean azpimarratzekoa da energia elektrikoaren kontsumoa, 2022an azken kontsumoaren %24 izan baita, deskarbonizazioarako aukera bat da. Deskarbonizazioaren bidean sistema energetikoaren elektrifikazioa da lortu beharrekoa besteak beste, eta datu honek EAEn deskarbonizazioaren bidean potentzialitatea dagoela adierazten du, baina gauzatzeko neurriak berehala hartu behar dira.




Nafarroan ere energia fosilak du energiaren azken kontsumoan pisu handiena, %71,5. Berriztagarrien eta elektrizitatearen kontsumoak %28,48 suposatzen du, eta horek deskarbonizazioan aurrerapausuak ematea ahalbidetzen du, baldin eta elektrizitatea berriztagarria izateko neurriak hartzen badira. Orokorrean, 2012-2022 bitartean energia kontsumo ereduak ez du aldaketarik izan, bilakaera grafikoan ikus daitekeenez, joera berdina mantentzen da energia iturri bakoitzaren kontsumoan. Beraz, oraindik asko hobetu beharra dago Nafarroako deskarbonizazioaren bidean ere.




1.4 Energia kontsumoa sektoreka

Energiaren azken kontsumoa sektoreka aztertzea interesgarria da. EAE eta Nafarroako egoera berdintsua da. Kontsumo handiena garraio sektoreak du, EAEn %45 eta Nafarroan %37,8. Industriak jarraitzen dio, EAEn %35 eta Nafarroan %36,2 kontsumituz. Bi sektore hauek dira kontsumoa gutxitu eta deskarbonizazioa eta elektrifikazioa berehala bultzatu behar dutenak.





Nafarroaren kasuan aipatzekoa da nekazaritzak energia kontsumoan duen pisua (%6), EAEn ez bezala (%1). Ekonomian pisua handiagoa du lehen sektoreak Nafarroan eta gainera industrialak da gailentzen den nekazaritza eredu, horregatik du energia kontsumo adierazgarria. Eredu industrial batetik eredu agroekologikorako bideak aurrerapausu handia suposatuko luke sektorearen deskarbonizazioaren bidean.




Sektore bakoitzaren energia kontsumoak azken urteetan izan duten bilakaera ikusita, aipatzekoa da industria eta garraioan eman direla aldaketak. Industriaren energia kontsumoak beherako joera du. Baina beherakada honen atzean jardueraren deslokalizazioa eta enpresen itxiera ere badaude, ez da efizientzia energetikoaren emaitza soilik. Garraioaren kasuan ordea, goranzko joera da aipagarriena, %42,13 egin baitu gora EAEn adibidez. Igoera izugarri hau gorantz egiten ari den gehiegizko mugikortasunaren adierazlea da. 2020a ezberdina izan zen. Pandemiaren ondorioz, bai

EAEEn eta baita Nafarroan, eta mundu osoan, garraioak eta industriak geldialdi handia izan zuten eta grafikoetan beherakada ikusten da. Hala ere, datu hori ez da sektorearen bilakaeraren adierazgarri, 2021ean iharduera arrunta berreskuratu baitzuten.



Sektore bakoitzak kontsumitzen duen energia mota aztertzea ere ezinbestekoa da. EAEko datuak soilik ditugu, baina Nafarroan ere egoera antzekoa dela uste dugu.




Garraioaren kasuan, petrolioan oinarritzen da guztiz (%94), eta industrian gas naturala da gehien erabiltzen dena (%39). Hala ere, industriak elektrizitatearen erabilera esanguratsua egiten du (%38) eta honek deskarbonizaziorako aukerak emango lituzke energia berriztagarriak erabiliko balira, are gehiago, autokontsumoan pausuak eman ditzake industriak. Sektore energetikoa, aurreikusi daitekeen bezala, guztiz fosila da oraindik(%92), eta Hego Euskal Herriko eredu energetikoa guztiz baldintzatzen du. Etxebizitza eta zerbitzuen kasuan, elektrizitatearen pisua handia da (%36) eta honek deskarbonizaziorako eta autokontsumorako aukera handiak emango lituzke, baldin eta hauek garatzeko behar diren neurriak hartzen badira. Oroar, sektore bakoitzak erabiltzen duen energia iturria ikusita, trantsizio energetikoaren behar handiena garraioan, industrian eta energia sektorean egin behar da.

1. 5. Elektrifikazioa eta deskarbonizazioa ez dira gauza bera


Trantsizio energetiko egoki batek energia berriztagarria gehitzea ekarri behar du, eta horrek energia elektrikoaren pisua handitzea dakar (gaur egun energia berriztagarrien bidez sor daitekeena baita). Beraz, beharrezkoa da ekonomiaren elektrifikazioan aurrera egitea.

Hala ere, elektrifikazio handiagoa ez da ekonomiaren deskarbonizazioaren sinonimoa. Gaur egun, energia fosilaren bidez sortzen baita elektrizitate gehiena, energia berriztagarrien bidez sorturikoa gutxiengoa da, bai EAEn bai Nafarroan.



EAEn gas naturalarekin funtzionatzen duten ziklo konbinatuak dira sortzaile nagusiak (%49) eta energia fosilen baterako sorkuntzak (kogenerazioak) ere badu pisua (%10). Gainera, inportatutako elektrizitatearen (%19) gehiengoa fosila da. Beraz, elektrizitate berriztagarria kontsumitzen dugun elektrizitatearen atal oso txikia da (%22). Datu hau benetan da kezagarria, elektrizitate berriztagarria elektrizitatearen %100 izatera gerturatu beharko litzateke trantsizioan aurrerapausuak emateko.

Nafarroan ere elektrizitate berriztagarriaren pisua handitu behar da.



Berriztagarrien presentzia Nafarroako elektrizitate sorkuntzan %46koa da, ia erdia, baina ez da nahikoa. Ziklo konbinatuak duen pisua %46 da, zehazki Castejongo zentralena. Egoera kezagarria da, elektrifikazioa emateaz gain, elektrizitatea berriztagarria izatea ezinbestekoa baita deskarbonizaziorako. Gainera, Castejongo zentralak elektrizitatea esportatzen dute, behar baino energia gehiago sortzen da beraz, eta horrek ez luke horrela izan behar. Behar den elektrizitatea sortu behar da Nafarroan, ez esportatzeko behar dena, eta energia berriztagarrietatik datorrena izan behar da.

2. ELAren PROPOSAMENAK BIDEZKO TRANTSIZIO ENERGETIKORAKO

ELAk duela hilabete batzuk argitaratu zuen Trantsizio Ekosozialerako Proposamena. Bertan, Hego Euskal Herriko egungo eredu ekonomikoaren diagnostikoa jaso genuen, eta trantsizio ekosozial justua egiteko beharra ikusi genuen, ekoizpen, kontsumo eta mugikortasun ereduak errotik aldatzea dakarrena.

Gure proposamenaren ardatzetako bat trantsizio energetiko justuaren beharra zen. Gai horretan sakontzen hasi aurretik, esan behar da ELArentzat aurrean dugun zibilizazio erronkaren konponbide bakarra ez da energia fosilen egungo kontsumoaren ordez berriztagarriak erabiltzea. Aurrerapen teknologikoek arazo guztiak konponduko dizkigutela pentsatzeko arrazoirik ere ez dago. Ezinbestekoa da beraz munduko energia kontsumoa murriztea, eta horrek bereziki eragiten die Ipar Global osoko herrialdeei.

Trantsizio energetikoaren arloko ELAren proposamenak esparru orokor horren barruan irakurri behar dira, eta, beraz, ezinbestekoa da energia kontsumoa nabarmen

murriztea. Bidezko trantsizioa energetikoaren 3 ardatz nagusiak kontsumo energetikoa murriztea, iturri berriztagarrietan oinarritzea eta sistema energetikoaren elektrifikazioa izan behar dira. Aldaketa hauek ez dute premia berdina sektore guztietan. Garraioan eta industrian egoera okerragoa da, energia fosila delako gehien erabiltzen dutena, eta trantsizioaren behar handiena dute.

Sarritan trantsizio energetikorako berriztagarri gehiago ekoiztea izaten da aipatzen den soluzio bakarra, baina honekin batera, beste hainbat neurri ere hartu behar dira, batez ere, energia kontsumoa murriztea eta elektrifikazioa. Energia berriztagarriekin funtzionatu nahi badugu, gutxiago kontsumitu beharko dugu, berriztagarriek ez dutelako gaitasunik orain dugun gehiegizko energia kontsumoari erantzuteko. Bestalde, energia berriztagarriak ez dira energia fosil guztiarentzat alternatiba. Energia fosilak elektrizitatearen sorkuntzarako erabiltzen direnean, berriztagarriek ordezkatu ditzakete hein handi batean. Baina denak ez du elektrizitatearekin funtzionatzen. Horregatik sektore bakoitzerako proposamen ezberdinak egiten ditu ELAk.

Pertsonen eta merkantzien garraioan erabiltzen den energia fosila berriztagarriengatik ordezkatzeko, milioika ibilgailu elektriko beharko lirarteke, eta hau materialki ezinezkoa bihurtzen ari da. Etorkizuneko garraioa kolektiboa, publikoa eta elektrikoa izan beharko da, baina gaur egungo gehiegizko mugikortasuna ere asko murriztu beharko da, bai pertsonena, bai merkantziarena ere. Murrizketa hau intentsitate handiagoz egin beharko da Hego Euskal Herria bezalako herrialdeetan, energia kontsumo per capita oso altua baita.

Industria sektoreari dagokionez, erabiltzen den gas naturala berriztagarriekin ordezkatzeko ez da beti posible izango. Horregatik, industriaren trantsizio ekologiko bat egitea beharrezkoa izango da, zer eta nola ekoiztu birpentsatu beharko dute enpresa askok ekonomikoki eta ingurumen ikuspuntutik bideragarriak izaten jarraitu nahi badute. Beharrezkoa izango da beraz ekoizpen ereduaren aldaketa sakona, ekonomia zirkularrean eta energia berriztagarriari oinarrituko dena, baina baita sistemaren eraldaketa sozial eta ekologikoa bermatuko duena ere. Gertuko ekonomia lehenetsi eta birkokatu behar da, mugikortasuna gutxitzeko eta bide batez mundu mailako gertaerek gurean eragin gutxiago izan dezaten.

ELAk neurri zehatzak proposatu ditu bidezko trantsizio energetikorako:

- Energia sistemaren plangintza demokratikoa egitea eta sistema osoa publikatzea (ekoizpena, garraioa eta hornidura).
- Sektorearen kontrol publiko eta soziala izatea.
- Energiarako eskubidea oinarritzeko eskubide unibertsal gisa onartzea, sarbidea bermatzea eta energia merkatuko logika guztietatik kanpo uztea.
- Energia berriztagarrietan oinarritutako trantsizioa egitea. Energia fosilekiko mendekotasunetik energia berriztagarrietan oinarritutako sistemarentz joan behar da.

- Gure energia kontsumoa murriztea, gure kontsumo maila ezingo baita berriztagarrien bidez ase.
- Herralde, hiri edo eskualde batek izan behar duen energia elektrikoaren kontsumoa aztertzea, ekoitzi beharreko energia berriztagarria zein den jakiteko, neurria egindako proiektu bat planteatzea eta kontsumoa murrizteko neurri gehigarriak ezartzea.
- Autokontsumoa ahalik eta gehien garatzea, energia eskubide gisa bermatzeko eta merkatuaren logikatik kanpo mantentzeko. Autokontsumoa garatzeko inbertsio eta laguntza publikoak ez dira inoiz energia enpresa handietara bideratu behar, orain gertatzen den bezala.
- Energia berriztagarria modu deszentralizatuan sortzea, hau da, kontsumogunetik hurbil, eta beharren arabera tamaina duten azpiegituretan.
- Energia beharrak asetzea, energia iturri berriztagarriak dibertsifikatuz eta behar bakoitzari ahalik eta hobekien erantzunez (berokuntza, elektrizitatea, mugikortasuna...): plaka fotovoltaikoak teilatuetan, ur jauzi berreskuratua, aerotermia, geotermia, biomasa eta eolikoak.
- Ingurumen inpaktuak gutxitzen dituzten proiektuak lehenestea. Energia berriztagarriek ere fase guztietan eragiten dute ingurumenean: eraikuntzan, ekoizpenenean edo erabiltzeari uzten zaionean. Hala ere, beharrezkoa da bidezko trantsizio energetikoa burutzea eta instalazioak jarri beharko dira. Horregatik, eskala egokian eraiki behar dira eta inpaktu gutxien sortzen duten kokalekuei lehentasuna eman behar zaie.
- Ingurune babestuetan, balio ekologiko handiko inguruneetan eta balio handiko nekazal lurretan energia azpiegiturek eraikitzea debekatzea.
- Trantsizio eredu hau sustatuko duten politika publikoen alde egitea, horretarako diru publikoa bideratuz.
- Izaera publiko eta komunitarioa duten tokiko energia komunitateak sortzea, herritarren eta inguruko administrazioen parte-hartze aktiboa bermatzeko, eta iturri berriztagarrien dibertsifikazioa eta energia kontsumoaren murrizketa bultzatzeko.

Trantsizio energetikorako proposamen honek, globalizazioaren eta azpiegitura handien mantra haustea suposatzen du. Gizarte osoarentzat bidezkoak diren neurriak hartu behar dira aurrean dugun erronkari aurre egiteko: berriztagarrietan eta kontsumoaren murrizketa handian oinarrituriko bidezko trantsizio energetikoa. Honekin batera industriaren eta garraioaren eraldaketa, eta ekonomiaren birlokalizazioa ere ezinbestekoak izango dira etorkizun hurbilean etorriko zaigun energia eta material faltari aurre egiteko. Baina batez ere, energia trantsizioak bidezkoa izan behar du, demokratikoa eta inor kanpoan utziko ez duena. Ez dago beste alternatibarik, eta horregatik ELAk eredu hau defendatzen jarraituko du.



www.ela.eus

ELA
EUSKAL SINDIKATUA